

Lema: UNEAN UNEKO

Ezizena: AROA

Liparra

ez ote da goizegi hiltzeko bezain

beranduegi bizitzen hasteko

zegoen oro joana da

ezerezerako bidean hor nonbait

alabaina bizia bizinahia ari zait ziztaka

minbiziak ez dit min berezirik eragiten

dena nahi duenak dena du galtzen

aldi joana ez da itzultzen

aldi galdua ez da atzematen

enara batek ez du udaberria egiten

denboratik sekulara

gerotik gerora

ene denboraren hatsa eta urratsa ezin har nabil

surik gaberik ez da kerik

neke gaberik ez da bizitzerik

nolanahi dela edonola ere haatik

itzalak jana du su oro

kearen usaina da sugarraren aztarna bakarra orain

dena da hautsi errautsi

dena hautsontzi errauts-ontzi
bizi izanaren lekuko isila dut neke hau

neke enea
eta eztula berriz eztula etengabeko eztula
eta ene hatsaren herio-kiratsa herdoilduriko arnasa
atabalari akitua dut bularrean
taupaka
gogorik gabe ere isurtzen dute gure diren ene begiek
denboraren orratzek gauaren larru beltza josten duten
gogaitasun geldiezin berberaz

beraz
bizi nahi nuke liparraren jabe etengabe
uneoro erroak hedatzen ari den bizinahi
ezdeus hau deuseztatu eta eten
etengo dela jakitun izan gabe hala ere
bizi nahi nuke goiz eder honetan
erail behar banindute legez
goizero atzarri goizero atzaparka
bizitza erauzi beharko balidate bezala
larritasunik gabe hala ere arimarik perfumatu gabe

horrenbestez
hautatzerik banu bizi nahi nuke
mairuen denboran
gauza guztiek hizketan zekiten denboran

goroldioa bezain isila izanik gauza guztien artean

goroldioa eta biok

kalaka jasanezinaren erdian

isil-misil

edozein unetan dena leherraraz lezakeen mehatxu

isil

baina mintza nadin orain

alferrik bada ere

ene gorputzak zeharkatzen ditu liparrak

eta lipar guziek dute ene gorputza zulatzen

harik eta azken uneak

zeina ezin baita sekula jakin zein izanen den

hobiratuko nauen arte

eta bat izanen gara orduan naizena nintzena eta zena

dena

bat eta huts

beti baitu markagailua bere alde Heriok

dena bat eta dena huts

askotariko denborak denbora beraren zati baino ez dira

lipar baten zatirik txikiena ere lipar da

azken beltzean

eta gehiago zatika ezin den lipar zati batean

hutsetik bilakatu ninduten

ernamuin sorgai bizigai gizagai erregai hilgai ongarri

dena huts eta dena bat

zatiki gizaki azkenki

finean azken finean

gizon nauzue gogoz zein gorputzez

bereziki heziketaz

beharbada nolabait hautuz

giza on eta giza txar eta giza erdipurdiko

dena bat eta dena huts

elur lur ur

denbora egur egiten ari da

beharra ez dago denbora ederraren aiduru

denbora galtzen ari naiz denborari buruz gogoetatzen

liparra galduta ni

geldi gu eta dena huts

mugagabeki ez nintzen izan eta ez naiz izanen mugagabeki

biziko ez dudan mugaz zedarritua dut bizialdia

liparrak harrapa nazan beha egon orde

harrapa dezadan liparra

irristakor galkor iheskor dena

mendea eta segundoa gurutzatzen diren lekua bezala

besterik ez izan eta

izan besterik ez

ezina eta egina elkartzen diren puntuan

naiz

zenbat inertzia jarraipen segizio
zenbat gurpil zoro sorgin gurpil zirkulu bizioso
zenbat kiribil eihera zentrifugazio
non zentroa beti den
beste nonbait beste zerbait beste norbait
eta ez ni neu neroni nihaur
orain

bizitzari ihes egin diodala
bizitza ihes egiten ari zaidala
jakitun jabetu naizen une honetan
gogora datorkit beste haren beste kantu hura
zioena gutxi gorabehera nolabait erratearren
ihesa dela bizitza zentzuz janzten duena
bizitzaren galera dela bizitzaren zentzua bera

ez ote da bizitzaren ihesa beraz bizitzaren muinaren muina

ez ote da heriotza ororen galera eta zentzuaren garaipena

ez ote naiz izan neure bizitzaren ikusle eta
ez irakurle are gutxiago idazle

ez ote da beranduegi idazten hasteko bezain
goizegi idazteari uzteko